

Euskal Ikasketetako gradua

Gradu Amaierako Lana

ALDAKETA
SEMANTIKOA
MAILEGUETAN

Zunbeltz Vega Olaeta

Tutorea: Blanca Urgell Lázaro

2014-2015 ikasturtea

AURKIBIDEA

1. Egitasmoaren oinarriak.....	3
1.1. Abiapuntua.....	3
1.2. Corpusa.....	3
2. Lanaren egitura.....	6
3. Aldaketa semantikoak.....	6
3.1. Aldaketa diakronikoa.....	6
3.2. Aldaketa sinkronikoa.....	8
4. Lexikoaren historia.....	11
5. Maileguak.....	12
5.1. Mailegutza zer den.....	12
5.2. Zergatik mailegatzen da?.....	13
5.3. Maileguak ezagutzeko irizpideak.....	13
6. Taularen osaera.....	14
7. Taula.....	16
8. Atal semantikoen azterketa.....	27
9. Ondorioak.....	32
10. Bibliografia.....	34

1. Egitasmoaren oinarriak

1.1. Abiapuntua

Semantika historikoaren alorra euskaraz jorratu gabe egonik ia erabat, lan honen abiapuntuko asmoa izan da corpus mugatu batean aztertzea aldaketa semantikoa latin eta erromantzeetatik hartutako maileguetan, jatorrizko adieraren mantentzea/aldatzea proportzioak neurtzea eta aldaketa egotekotan zein eratakoak diren sailkatzea, bariazio semantikoa aztertzeke erabili ohi diren parametroak erabiliz.

1.2. Corpora

Corpusa osatzerakoan hainbat zalantza izan ditugu, eredu faltagatik. Hasiera batean ikerlari batzuen lanetan, hala nola G. Rohlfs-en *La influencia latina en la lengua y cultura vascas*-en (1933), latinetiko maileguak arloka (erlijioa, administrazioa, landareak, animaliak, barazkiak...) aurkezten direla ikusirik, ez zitzaigun planteamendu txarra iruditu alorkako hurbilketa egitea, ohikoa izaten baita beste hizkuntza batzuetan; adibidez, koloreak (Wright 2011), landare landuak eta animalia etxekotuak (Hehn 1976) edo erlijioa (Lodej 2012). Hala eta guztiz ere, begi-bistakoa da halako maileguek ehuneko oso gora batean ez dutela euskaraz esanahi aldaketarik jaso: *ahate*, *tipula*, *marrubi*, *lege*... eta horregatik baztertu genuen aukera hori.

Horrenbestez, corpora hiztegitik eratzea erabili genuen, eta honetarako Ibon Sarasolaren *Euskal Hiztegia* erabili dugu, bai adierak lantzeko *Orotariko Euskal Hiztegia*-ren corpusean oinarritua delako, baita ematen duen bestelako informazio baliagarriagatik: lehen lekukotasunaren data, batzuetan etorkia ere, eta hitza lekukotu zenetik gaur arte, aldaketarik eman bada lehen eta ondorengo formak.

Hiztegi osoa aztertzeak GRAL baten neurria alde handiz gaindituko zuelakoan, letra bat edo aztertzea erabaki genuen. Hasiera batean mailegu zaharrak bakarrik aztertzea izan zen ideia, baina honek gauzak asko zailtzen zizkigun, ez baitago zaharra (latinetik) eta berria (erromantzetik) banaketa bitar azalekoaz beste kronologia zehatzagorik, eta guk egin beharko genukeen lan mardul hori, gainera. Beraz, azkenean ez dugu bereizkuntzarik egin zahar eta berrien artean. Dena dela, hiztegioko letra bat hartzekotan, herskari ahostunez (B, D eta G) hasten diren hitzetan jarri genuen arreta, honela mailegu zaharrak ere egotea ziurtzat eman baikenezakeen (ezaguna denez, latinetiko hitz hasierako herskari ahoskabeak herskari ahostunarekin daude ordezkaturak mailegu zaharretan; cf. Mitxelena 1977: 238-254), eta aukeran B hautatu genuen. Berehala ikusi genuen B letra bera ere zabalegia zela, gero azalduko ditugun zailtasunak direla eta. Izan ere, BA- hasierako sarrera guztiak begitandu ostean, 200 mailegu bueltan egon zitezkeela begiz jota, corpus hori askitzat jo genuen gure lanerako.

Ondoren identifikatutako ustezko maileguak egiaztatzea jo genuen eta hemen aurkitu genuen lanaren lehenengo zailtasuna, zeren eta, ezaguna denez, ez baitago horretarako lan-tresnarik egokiena izango zen euskal hiztegi etimologikorik, begiz

jotako hitza benetan mailegua dela eta nondik datorren halako berme batez esango digunik.

Izan, bada euskal hiztegi etimologiko oso bat, Novia de Salcedoren *Diccionario etimológico del idioma vascongado* (1877) hiztegi fantasiosoa, Larramendiren *Hiztegi Hirukoitza*-ren alderantzizkoa edo dena, non, nolabait esateko, edozein silabari esanahi bat ematen zaion, eta nekez topatuko dugu han gure hitzen egiazko etorkia. Bere ustetan, Larramendiri jarraituz, euskararekin harremanetan izan diren hizkuntzek gorde dituzte antzinako forma galdu horietatik batzuk, guztiz gaztelaniak, baina baita latinak, grekoak, etab. Euskal etimologi hiztegi gehien-gehienek XIX. mendetik aurrera abizenen jatorria jorratu dute, J. F. Irigoyen-en *Colección alfabética de apellidos vascongados con su significado* (México, 1809, 1868; *Rev. Euskal Erria*, 1881) goiztiarretik hasi eta Mitxelenaren *Apellidos Vascos* (1953) arte bederen (cf. Urgell 2002: 2-87).

Badira hiru euskal hiztegi etimologiko saio: Agud & Tovar (1991), Trask (2008) eta Morvan (1992). Agud eta Tovarrenean BA-z hasten diren hitzak oso gutxi izanik, hamar bat edo, *baba* eta *bazko* hitzen etorkian bakarrik izan zaigu erabilgarri. Trask-ek hiztegi etimologikoari heldu zion, baina zoritxarrez bere bizitzako azken urteetan eta heriotzak harrapatuta bukatu gabe utzi zuen. Haren ondorengoek argitaratu zuten hiztegia sarean, zegoen bezala, eta penagarria da, Trasken gainerako lan txukunen aldean oso eskasa delako: zirriborroa besterik ez denez, hainbat sarrera osatu gabe daude eta egileak bere buruari egindako ohar asko ageri dira. Dena dela, guri zenbait hitzetan lagungarria izan zaigu, adibidez *barandaila* < lat. *parentália*, *barre* < ara. *farah* eta *baxera* < gask. *bachere*. Azkenik Morvan-en hiztegia ere badugu, zenbait mailegutuan, esaterako *babes* < *paves*, lagungarria izan zaiguna.

Hiztegi hauetan aurkitutako gabeziek beste bide batzuk lantzerantz eramanez gaituzte, zehazki gaztelaniazko, latinezko eta okzitanierazko hiztegiak jota, bertan corpuseko hitzen etorkia aurkitzeko esperantzan, bai zuzenean, baita haietako batzuek euren hitzen etorkiaz ematen duten informazioaren bitartez: izan ere, batzuetan haiei esker jakin baitezakegu zuzenean edo zeharka sartuak izan diren.

Corpusean bildutako mailegu gehienak gaztelaniatik eta latinetik datoz, batzuk nabarmenki gaskoi edo frantsesetik sartuak badira ere (%76 gaztelaniatik, %12 latinetik, %9 frantses, gaskoi eta bearnesetik eta falta den %4 beste hizkuntza batzuetatik); dena dela, askotan begiz jota eta fonologiaren laguntza hutsez erabaki behar izan dugu nondik datorren mailegua, maileguen etorkiari buruzko azterketa zehatzik ez dagoenez gero. Kasuren batean (cf. *barre*) iturriek proposatutako etimologia guri ere zalantzarazkoa iruditu arren, bere horretan uztea erabaki dugu, adituen proposamena eztabaidatzeko gaitasunik ez dugulakoan. Honegatik guztiagatik hemen azaltzen diren etorkiak behin-behinekoak izango dira, noski. Edonola ere, mailegu itxura erabatekoa duten hitz zenbait ere jaso ditugu corpusean, nahiz etorkia asmatzerik ez dugun izan: etorkia ezagutu ezean ez dira baliagarriak izango gure azterketarako, egia, baina honekin agerian jarri nahi izan dugu maileguen azterketan dagoen atzerapena.

Bestalde, baliteke BA-z hasten diren mailegu guztiak ez identifikatu izana, zeren eta, zenbat eta gure hizkuntzan denbora gehiago eraman eta honek pairatutako aldaketek jatorrizkotik gehiago aldaraziko baitzituzten haietako batzuk, hain non begiz jota ezin daitezkeen identifikatu, nahiz arrazoi formalek mailegutzat jotzeko modukoak eman. Honi dagokionez, honela zioen Mitxelena:

...la incertidumbre que nos domina a menudo a cerca del origen de una palabra: desde los ejemplos claros en que la admisión de un prototipo latino explica satisfactoriamente un término vasco en forma y sentido hasta aquéllos en que una hipótesis de esta suerte aparece extremadamente improbable, se escalona una multitud de casos dudosos. Por consideraciones formales sobre todo, uno se siente p. ej. inclinado a ver préstamos en vizc. *abagadaune* ‘ocasión’ (...), occid. ant. *apukadu* ‘sucedido’, ronc. *atizatu*, *atxezatu* ‘comulgado’, *dollor* ‘ruin, malo’, *elikatu* ‘abstenido’ y ‘alimentado’, vizc. ant. *endorea* ‘el alcalde’, *errexal* ‘árbol’ en Landucci, etc, pero no se ha señalado que sepamos su origen preciso de manera solvente (Mitzelena 2011 [1964]: 55-56).

Lakarrak argitu zuen azkenik *abagadaune zemai*-rekin batera (Lakarra 2005: 339-351), eta batez ere sakondu du bide formaletik, CVC erro kanonikoak berekin dakartzan hertsapenak ere erantsiaz etorki argirik ez izan arren arrazoi formalengatik maileguak bide diren hitzak identifikatzeko, esaterako TVTV erro-eredu gisako mailegu hauek: *baba*, *bago*, *baka*, *bake*, *bapo*, *bapho* (ik. Lakarra 2012: 17-74, besteak beste). Esan gabe doa bide honek gure helburutik oso urrun eramango gintuela.

Hona hemen etimologiak bilatzerakoan lagungarri izan zaizkigun hiztegien zerrenda:

- 1- Sarasolaren *Euskal Hiztegia*-k batzuetan etorkiak markatuta dakartza, nahiz eta gutxitan izan.
- 2- *Orotariko Euskal Hiztegia*-n ere zenbait etorki agertzen dira.
- 3- Pierre Lhanderen *Dictionnaire Basque-Français et Français-Basque*-n (1926) hainbat etimo agertzen dira, nahiz eta ez omen diren beti ziurrak.
- 4- Agud eta Tovarren *Materiales para un Diccionario Etimológico de la Lengua Vasca* (1991).
- 5- *Diccionario de la Real Academia Española*-k (2012) gaztelaniazko hitzen etorkian izugarri lagundu digu, ia hitz guztietan nondik etorria den jartzen baitu. Ez da gure lanaren helburua gaztelaniazko hitzen etorkia jakitea, baina horrek pistak ematen dizkigu euskarak benetan gaztelaniatik hartu dituen edo beste hizkuntzaren batetik zuzenean. Bereiz aipatzekoa da *bacalao* hitzaren kasua: nahiz, adibidez, Morvanek euskal hitza gaztelaniatik datorrela esan (s.v. *bakailao*), Akademiaren hiztegiaren

arabera euskaratik datorrenez, honen irizpideari helduta gure corpusetik kanpo utzi dugu.

6- Palay-ren *Dictionnaire du béarnais et du gascon modernes* (1961) hiztegia ere nahikotan laguntza handikoa izan zaigu batere ondo mugatuta ez dauden Iparraldeko erromantzeetatik datozen maileguak identifikatzeko.

7- Morvan-en *Diccionario etimológico vasco*.

8- Arbelaizen *Las etimologías vascas en la obra de Luis Michelena* (1978) hiztegia hitz batzuetan izan zaigu erabilgarri, hala nola *bateiatu* < lat. *baptidiare*; *barano* < bearnesetik datorrela diosku, bestalde, baina ez etorkia.

9- Trask-en *Etymological Dictionary of Basque* (2008).

10- Mitxelenaren *Obras completas-en* aurkibidea (2011).

2. Lanaren egitura

Lehendabizi aldaketa semantikoaz hitz egingo dugu, eta beronen inguruan dauden bi ikuspuntuak, hau da, diakronikoa eta sinkronikoa bereiziko ditugu, bakoitzak aldaketak nola ikusten dituen eta horien eragileak azalduz.

Ondoren lexikoaren historia laburra egingo dugu, eta gero maileguak eta mailegutza zer den, zergatik gertatzen den eta hauek ezagutzeko irizpideak zehaztuko ditugu.

Ostean taularen osaera azalduko dugu, taularen beraren sarrera modura, eta azkenik aztertutako maileguetatik atera daitezkeen ondorioak.

3. Aldaketa Semantikoa

Aldaketa semantikoa deritzo hitz zehatz baten “berezko” edo “jatorrizko” esanahia aldatzen denean. Hainbat aldaketa mota daude eta lehenabizi aldaketa semantikoaren barruan dauden bi ikuspuntuak aurkeztu behar ditugu:

a) diakronikoak urteak aurrera joan ahala esanahiek izan dituzten garapenak aztertzen ditu, hau da, aldaketa semantikoak begiratzuz, zein adiera zeinetatik datorren.

b) sinkronikoak momentu konkretu batean hitzen arteko esanahien erlazioak begiratzen ditu, eremu semantikoak alderatuz, adierak justifikatzeko.

3.1. Aldaketa diakronikoa

Aldaketa diakronikoaren ikuspuntua zehazteko, Crowley (2010: 151-154), Trask (1997: 37-51) eta Campbell (2004: 252-272) izan ditugu erreferentzia, baina gehienetan

Campbell izan dugu epizentro, bere lana osatuenetakoa dela iruditu zaigulako, besteak honek dituen gabeziak osatzeko erabiliz. Esanahi aldaketa lau taldetan banatu genezake hiru ikerlari hauei jarraiki:

1) Hedapena → hitzak adiera berri bat edo gehiago bereganatzen dituenean; horrenbestez, hitz hori testuinguru gehiagotan erabili ahalko dugu. Gehienetan aldaketa hauek gauza konkretuetatik gauza abstraktuetarako norabidean eman ohi dira. Adibidez: ingelesez *dog* hitzak hasieran `txakur arraza indartsua´ esanahia zeukan eta gaur egun, ostera, orokorturik dago edozein txakurrentzako baliagarria izanik. Gazteleran ere *caballero* hitzak `zalduna´ adiera zuen hasiera batean eta orain `jaun´-erako ere balio du.

2) Murriztapena → hitz batek adiera bat galtzen duenean, dela zentzua hobetzeagatik edo txartzeagatik; beraz, lehen baino testuinguru gutxiagotan erabili ahalko da. Oraingoan aldaketa honek esanahia konkretuago bihurtzen du, figura abstraktutik urrunduz. Esaterako, gazteleraz *rezar* hitzak `otoitz egin´ esan nahi du, baina lehenago bere adiera `errezitatu, ozen esan´ zen. Ingelesez *girl* hitzak `ume edo pertsona gaztea, edozein sexutakoa´ adiera zuen lehenago, baina orain, berriz, `neska gaztea´ bakarrik esan nahi du.

3) Bidegurutzeta → hitz batek beste esanahi bat hartzen du, baina aurreko esanahiarekin erlazioa duen zerbaitekin. Adibidez, ingelesezko *pitch black* `oso beltza´ esapidea hartzen badugu, hiztun askok ez du jakingo *pitch* hitza galipota bezalako substantzia oso beltza izendatzeko erabiltzen zela. Hiztun horientzat *pitch* hitzaren esanahia `oso, asko´ bakarrik izango da, kontuan hartu gabe aurretiko esanahiak gaur egun erabiltzen duten esapidearekin duen zerikusia handia.

4) Erabateko aldaketa → hitzak erabat galtzen du hasierako esanahia eta berri bat hartzen du, aurrekoarekin inolako zerikusirik eduki gabe. Hona hemen adibide bat: ingeleseko *silly* hitza alemanierazko *selig* `santua, bedeinkatua´ adiera duen hitzaren kognatua dugu, berau *seele* `arima´ hitzaren eratorria. Alemanezko hitzak jatorrizko esanahia erakusten digunez, semantikoki aldaketa handia egon dela ondoriozta genezake hortik gaur egungo ingelesarekin alderatuz gero, `leloa´ esanahia baitu. Hitzek ez dute salto egiten esanahi batetik bestera horrelako aldaketetan, aldaketak gutxika ematen dira denboraren poderioz.

Badaude aldaketa semantiko hauek gertatzea eragiten duten zenbait indar bultzatzaile, eta hauek dira aldaketek hartzen dituzten norabideak. Hona hemen eragile batzuk eta euren norabideak:

1) Metafora → honen bidez errealitate bat beste baten izenarekin ordezkutzen da. Adibidez, gazteleraz *sierra* `zerra´ hitza metaforaren bidez `mendikatea´ esateko ere hasi zen erabiltzen eta orain *sierra*-k bi adiera horiek gutxienez bereganatuta ditu.

2) Metonimia → honen bidez objektu baten izena harremana duen beste kontzeptu batenarekin aldatzen da: adibidez, *Picassoren koadro bat erosi dut* esan beharrean *Picasso bat erosi dut* esaten dugu.

3) Sinekdoke → honen bidez parte bat orotasuna adierazteko erabiltzen da, adibidez: *Lan egiten dut ogia irabazteko* (ez bakarrik ogia: ogia, ura, haragia...). Orotasuna partearen ordeztan ere erabiltzen da: *Polizia iritsi zen* (= 'polizia batzuk iritsi ziren'). Metonimia eta sinekdokearen arteko aldea oso txikia izanik, autore batzuek metonimia darabilte bakarrik, edozein testuingurutarako, bien arteko bereizkuntzarik egin gabe.

4) Garapen gaitzesgarria → honen bidez hitzak bilakaera negatibo bat hartzen du; askotan emakumeen gaineko hitzak izan ohi dira horrelakoak; gaztelaniaz, adibidez, *ramera* 'prostituta' lehenago 'tabernariaren emaztea' edo horrelako zerbait zen. Aipatutako emakumeen kasua hobeto islatzeko *zorro* eta *zorra* berez sexuan bereizten dira bakarrik, baina gizon baten gainean *Es un zorro* esaten badugu 'zuhur eta adi' egoten dela esan nahi dugu, baina *Es una zorra* esaez gero 'emagaldua' adiera hartzen du.

5) Garapen onesgarria → honen bidez oraingoan adierak bilakaera positiboa du; gaztelaniazko adibide honetan argi ikusten da: *casa* 'etxe' < latineko *casa* 'txabola'.

6) Tabua/(eufemismoa) → honen bidez hitz bat publikoki erabiltzeko egokia ez denean, haren ordeztan hain gogorra ez den beste bat erabiltzen da, hau da, eufemismoari esker tabua den hitza ordezkatzeko dugu. Gizarteak eraikitzen du zer den tabu eta zer ez den; horrenbestez, gizarte bakoitzean ezberdinak dira tabuak, nahiz eta beti egoten diren zenbait ohikoak izaten direnak: sexua, hilketa... Adibidez, *mozkortuta* (tabua)-ren ordeztan *edanda* (eufemismoa) hobeto ikusita dago.

7) Hiperbolea → honen bidez ideia bat nabarmentzearren errealitatek kanpo geratzen diren adierazpenak erabiltzean datza; esaterako, gizaki bat handia dela esateko *erraldoia* dela esatea.

8) Litotea → honen bidez adierazpen bat itxuraz leundu egiten da, horrela kontrako adiera indartzen da, adibidez: *Liburu hori ez da batere txarra* (benetan ona dela adierazteko). Perifrasi eta eufemismoarekin zerikusia du.

3.2. Aldaketa sinkronikoa

Aldaketa sinkronikoaren ikusmoldea begitantzeko, Lakoff eta Johnson (1986: 39-49), Santos Dominguez eta Espinosa Elorza (1996: 23-48) eta Garcia Murga (2014: 133-150) izan ditugu hizpide. Sinkronisten artean badira ikerlerro ezberdinak, eta kasu honetan García Murga izan dugu gidari eta erreferentzi puntu, nahiz besteak ere kontuan hartu zenbait ideiatan.

Espresio batek gutxitan izan ohi du adiera bakarra. Hizkuntza bateko espresioen gaineko analisi zehatza eginez gero, berehala ohartuko gara espresio horiek duten esanahi aniztasunaz. Baina aniztasun hori guztia ez zaio fenomeno linguistiko bati

bakarrik zor. Maila lexikoan, esanahiak beren artean independenteak dira, bakoitzak bere sarrera lexikoa duelarik: horri “anbiguotasuna” deritzo.

Estrategia teoriko hau ostera, beste kasu askotan ez da ematen adiera baten esanahi aniztasuna sistematikoki beste hizkuntza eta adieretan ageri denean. Honelakoetan nahiz eta esanahi anitzak argiki ezberdinak izan, beraien artean erlazio kutsu bat egonik, polisemiaz hitz egingo dugu.

Hitz baten adiera aniztasuna indeterminazio semantikoagatik, alfertasunagatik edo deixiagatik izan daiteke. Hona hemen hiru eragileen laburpen txikia:

1) Anbiguotasuna eta polisemia → anbiguotasunaren barruan bi mota bereizten dira: lexikoa eta estrukturala.

a) Anbiguotasun lexikoa edo homonimia → *orri* hitzak, sei adiera ditu gutxienez, eta horiek guztiek lexikoian agertu behar dute, bata bestetik bereiziz:

orri 1: hostoa, bereziki handia.

orri 2: paper, zur, metal edo beste hainbat materialezko xafla mehea.

orri 3: orrialde.

orri 4: ate eta leihoetan, baogunea ixteko edo irekitzeko jarrita egoten diren pieza artikulatu eta higikorretako bakoitza...

orri 5: BIOL. zenbait organo edo egitura mehe eta zabal, lamina.

orri 6: MIKOL. agarikaleen ordenako perretxiko gehienetan txapelaren azpian dauden xaflatxo erradial moduko egituretako bakoitza, bere azalean himenioak dituena.

Hiztun arruntarentzat baliteke anbiguotasun lexikoa kasualitatea izatea, ikusitako sei adierak independenteak bailiran ulertuta. Homonimoak diren hitzetan ez da arrazoi teorikorik ageri hizkuntza batek esanahi horiek batera lexikaliza ditzan. Gainera, beste hizkuntza batzuetan baliteke esanahi horiek ez agertzea hitz berean lexikalizatuta; beraz, homonimia ez da berdinean ematen hizkuntza guztietan. Esate baterako, hurrengo hizkuntzetan ez da beti berdinean ematen, batzuetan bai eta besteetan ez:

Gaztelera	Euskara	Katalana	Frantsesa
estación	urtaroa/ geltokia	estació	saison/ gare

b) Anbiguotasun estrukturala → anbiguotasun mota hau sistematikoagoa da, eta hizkuntza guztietan ere antzeko portaera du; hurrengo perpaus guztiak estrukturaliki anbiguoak dira:

a) Todos los estudiantes han leído un libro.

b) Ikasle guztiek liburu bat irakurri dute.

c) *Tots els estudiants han llegit un llibre.*

d) *Tous les étudiants ont lu un livre.*

Ulertu dezakegu guztiek liburu berbera irakurri dutela edo bakoitzak aukeratu duena irakurri duela.

Anbiguitasuna dela esango dugu, esanahi ezberdin multzo bat espresio batekin uztarturik dugunean eta berau gramatikak eraikia edo lexikoiak gordea denean. Polisemia, berriz, esanahi aniztasuna sistematikoa denean. Pustejovsky-k (1995) lexikoi sortaile bat proposatzen du, hitzen zentzu polisemikoak sortzeko gai dena. Argi dago zentzu askotan testuinguruari eta funtzio pragmatikoari esker esanahia argi geratzen zaigula. Horregatik diogu polisemiak orokortasun mekanismo kognitiboak dituela eta eurekin batera lan egiten duela bai gramatikak baita lexikoiak ere, balore semantikoak ezartzeko espresio linguistikoei.

2) Indeterminazioa, alfertasuna eta deixia → indeterminazioa deritzo hitz baten esanahia anitza denean eta objektu edo egoera ezberdinei aplikagarria denean (kontuz: ez da polisemia eta anbiguitasunarekin nahastu behar). Hona hemen indeterminazioaren adibide bat: *Gaur eskolan aiten bilerara bat egon da*; honek ‘aitak eta amak’ adierazteko balio lezake, baina bilerara aitak bakarrik joan badira, perpausak egiazkoa izaten jarraituko luke. Ez da beti erraza izaten ondo bereiztea anbiguitasuna, polisemia eta indeterminazioa.

Alfertasunak ez dauka zerikusirik informazio gabeziarekin, ezin daiteke desegin. Hona hemen adibide bat: *Errepide hau zabala da*. Perpaus hau faltsua izango litzateke errepide horrek metro bateko zabalera izango balu, baina hogeita hamar metro edukiz gero ez. Hala ere, zein momentutan bihurtzen da zabal errepidea? Honi “sorites paradoxa” deritzo (Sainsbury eta Williamson, 1995): ez dago mugari bat non aurreko perpausa faltsua izatetik egia izatera aldatzen den. Alfertasun sistematikoa ere badugu, eta hau antonimo gradualetan (*bero-hotz*, *altu-baxu* edo *garesti-merke*) eta zenbakaitzekin (*gutxi*, *asko*) ageri ohi da. Alfertasunak teoria semantikoei eragiten die, espresio semantikoen esanahia ulergaitzago bilakatzen duelako.

Azkenik espresio deiktikoak ditugu; hona hemen adibide bat: bi lagun elkarrizketan ari dira: *Yo estoy en lo cierto. Tú estás equivocado*.

a) *Jon está en lo cierto. Peio está equivocado*

b) *Peio está en lo cierto. Tú estás equivocado*

Esanahiaren zentzua igorlea nor den eta hartzailea nor den eta honen araberakoa izango da. Espresio deiktikoak dira pertsona-izenordainak, denbora aditzondoak, leku aditzondoak, etab.

3) Esanahi aldaketa: metonimia eta metafora → hizkuntza naturaletan esanahia anitza, dinamikoa eta malgua da. Horrela esanahiak hainbat bide har ditzake eta bide horiek harrarazten duten bultzatzaileak metonimia eta metafora ditugu.

a) Metonimia → espresio baten balore erreferentziala beste balore erreferentzial batez aldatzen da, non honek aurrekoarekin erlazioa mantentzen duen; adibidez:

1. *Chomsky está en la estantería de arriba.*

2. Los libros de Chomsky están en la estantería de arriba.

1. perpausa hitzez hitz ere interpretatu daiteke, baina gehienetan beharrezkoa da metonimiara jotzea, bestela ezinezko suertatzen baita perpausa ulertzea.

b) Metafora → analogia ezartzen du bi eremuren artean; hona adibide bat: *He invertido mucho tiempo en este trabajo*, non “tiempo = dirua“ esan nahi duen. Horra hor esandako bi eremuen arteko uztarketa.

Bi kontzeptu hauek oso errotuta ditugu gure eguneroko hizketan eta automatikoki erabiltzen ditugu, inongo ahalegin berezirik egin gabe ez esaterakoan, ezta ulertzeko garaian ere.

Esan dugun bezala ez da batere erraza anbiguotasuna, polisemia eta indeterminazioa bereiztea. Hainbat adiera dituen hitz bat aurkituz gero, alfertasuna eta deixia alde batera utziz, honako arrazoiak izan litezke aniztasun horren eragile nagusiak:

1- Esanahi aniztasuna lexikoa mugitzen da; horrenbestez, hainbat sarrera lexiko independente izango ditu. Kasu honetan hitz hori anbigua dela esango genuke.

2- Hainbat esanahiren artean badago bat oinarrizkoa dena: horren adieratik eta beste ekintza (pragmatika, semantika) batzuk jokoan sartzean, beste adierak eratortzen dira. Honek monosemia semantikoa egonkortzen du, hau da, adiera lexiko guztiek esanahi semantiko bakarria dutela.

3- Esanahi aniztasuna ere adiera lexiko bakar batetik dator; baina oraingoan adiera hori abstraktua izanik, gai da hainbat testuingurutako esanahia hartzeko. Honek polisemiaren alde egiten du.

4. Lexikoaren historia

Atal hau osatzeko Joseba A. Lakarra eta Blanca Urgell-en (2008) ikasteko materialak izan ditugu gidari nagusi.

Hizkuntza baten hitz altxorra atal itxi eta egonkortzat hartzeko joera dugu: hiztegiak kabitzen duena izaten da hitzun arrunt ikasiarentzat bere hizkuntzaren lexikoa; alde handiz hizkuntzaren atal ireki eta aldakorrena da, ordea: hizkuntzetan une oro hitz berriak sortzen dira kontzeptu berriak izendatzeko edo hitz zaharrak ordezkatzeko;

horri, aldaketa lexikoa deritzo. Hitzaren esanahia ere denborarekin aldatuz doa, eta honi, aldaketa semantikoa deritzo. Denborak aurrera egin ahala hitzak zaharkitu egiten dira baita ahaztu ere, dela adierazten zituzten kontzeptuak alboratuak izan direlako, dela beste batzuek ordezkatu dituztelako (Trask 1996: 259-263).

Euskaraz badaude latinetik eta lau erromantzeetatik (gaztelania, nafar erromantzea, gaskoiera eta frantsesa) datozen hitzak. Baliteke latin aurreko garaietan garaiko alboko hizkuntzetatik ere hitzak hartzea, zeltatik adibidez, baina ez dago horren arrasto garbiegirik eta zail dira antzematen (Gorrochategui 1987: 951-960). Badira germanieratik eta arabieratik datozen hitzak, agian ez zuzenean, baizik eta zeharka erromantzeen bitartez seguruenik (Mitxelena 1964: 1-73).

Hitzak nola sartzen diren hizkuntzetan bi taldetan bereizten dira: ondare zaharrekoak eta maileguak. Ondare zaharrekoak ditugu lehenagotik datozenak eta hizkuntzarekin aldatuz doazenak, maileguak berriz beste hizkuntza batetik sartu direnak.

5. Maileguak

Atal honetan aurretik aipatutako Joseba A. Lakarra eta Blanca Urgell (2008) ikasteko materialak izan ditugu lagungarri.

Euskal lexikoa alboko hizkuntzetatik hartutako hitz kopuru zabal batek ere osatzen du. Hizkuntza eta garai ezberdinetakoak dira, baina euskal maileguen jatorri oparo, nabari eta ezagunena azken hogeita mendeotan sartutakoa da, latinetik lehenagotik eta geroago auzo erromantzeetatik.

Baliteke V. mendetik aurrera mailegu germaniarren eta VIII. mendetik aurrera arabiarren sartu izana, lehen esan bezala, baina ez da oraingoz frogatu mailegu zuzenik dagoenik: hauek denak erromantzeen bitartez sartu direla ematen du.

Indoeuroparrak ez diren hizkuntzen alorrean iberiera izan daiteke nolabaiteko egiantza dukeen hautagai bakarra, nahiz eta ez egon ziurtasunik, batez ere jakinik iberiera deszifratu egon arren ulertzen ez den hizkuntza delako (Mitxelena 1964: 1-73).

5.1. Mailegutza zer den

Mailegua beste hizkuntza batetik harturiko item lexikoa da, hortik aurrera hizkuntzaren lexikoaren parte bihurtzen dena. Mailegatzea edozein hizkuntzatan ohikoa da, ez bakarrik lexikoan, baita arau fonologiko, morfema egitura sintaktiko, lotura semantiko eta hainbat elementu gehiagotan.

Mailegutza nolabaiteko elebiduntasuna egotea eskatzen du hizkuntza hartzaile eta hizkuntza emailearen artean. Hizkuntza ukipen egoeraren ondorioa da, eta haren kopuru eta nolakoa oso lotuta dago egoera soziolinguistikoarekin. Halakoetan

mailegutza norabide bakarrekotzat jotzeko joera badugu ere, norabide bietan gertatu ohi da, nahiz eta kopuru eta nolakoa errotik aldatuko da hizkuntza bakoitzaren estatusaren arabera.

5.2. Zergatik mailegutzen?

Bi arrazoi nagusi daude maileguak hartzerako orduan: beharra eta prestigioa. Kanpotik datozen gauza edo kontzeptu berriak izendatzeko beharra dugunez, maiz gauza edo kontzeptuarekin batera haren izena ere mailegutzen dugu. Honek munduko hizkuntza askotan ditugun mailegu berdinak azaltzen ditu: *kafea, telebista...* Baina askotan maileguak prestigioagatik hartzen ditugu beharrik gabe, hitz arrotzak gehiago estimatzen dira eta jasoago, gaurkoago, zehatzago eta adierazgarriago ematen dutelako hiztunen begietara.

Maileguak orokorrean egokitu egiten dira hizkuntza hartzailearen egitura morfologiko eta fonologikora: honi “egokitzapena” deritzo. Fonologia mailan hots arrotzak hizkuntza hartzailearen hots hurbilenarekin ordezkaten dira eta egitura fonologiko arrotzak ere hartzailearen fonotaktikatik igarotzen dira egokitzeko. Adibidez, euskal fonologia sisteman garai batean ez zegoen /f/ hotsa, bortitz/ahul oposaketa zuen euskarak, eta horregatik /b/-rekin ordezkatu genuen; geroago ahostun/ahoskabe oposaketara igaro zenean /p/-rekin ordezkaten hasi zen, ostera.

Hala ere, ukipen egoera oso ezberdinak egonik, mailegutza ondukoak ere ezberdinak izan daitezke: jokoan sartzen dira ukipenaren indarra, harreman mota eta elebiduntasun maila. Denbora luze, hedadura handi eta harreman estuko kasuetan fonema berriak ere mailega daitezke hizkuntza hartzailean, fonema inbentarioa eraldatuz, baita fonotaktika ere.

Maileguen hots-egokitzapenetan ez da erregularitasunik egoten orokorrean, bi arrazoi nagusi hauengatik: 1- Garai ezberdinetako maileguak baino ez dira garai horretako egokitzapen berak jaso dituztenak, baina hala ere ahoskeran ala idazkeran oinarritutako aldaerak daude. 2- Hizkuntza hartzailearen morfologiari ere egokitu behar zaizkio eta gure hizkuntzan sartzeko izenkiak deklinabidea jaso behar du eta aditzek partizipioaz gainera aditzoina (Iparraldean behintzat) eta aditz-izena sortu behar dute.

5.3. Maileguak ezagutzeko irizpideak

Batzuetan arazoak egoten dira maileguetan jakiteko zein den beraien hizkuntza emailea eta zein hartzailea, eta ez da erantzun erraza maileguak antzematea, ez euren norabidea, batez ere historia laburrekoa eta historiaurre ezezaguneko hizkuntza familia eta hizkuntzetan. Hona hemen zenbait aztarna maileguak identifikatzeko orduan lagungarriak izan daitezkeenak:

1- Aztarna fonologikoak → Hots arrotzak izatea edo eremu fonologikoak hausten dituzten gertakariak izatea, hau da frogarik nabari eta indartsuena. Hizkuntza emailean eta hartzailean gertatu diren hots-aldaketei buruzko informazioa izatea oso lagungarria izan daiteke maileguak aurkitzeko, norabidea erabakitzeko eta hizkuntza emailea zen

den jakiteko. Adibidez, *polit* eta *ausart* ezin daitezke gaztelaniatik etorri, honek ez baitzuen hitz bukaerako bokala galtzen; gaskoierak dirudi hizkuntza emaile egiantzekoena ezaugarri honi begiratuta.

2- Konplexutasun morfologikoa → Lehian diren hizkuntzetako batean hitza morfologikoki konplexua bada edo etimologia konplexua badu (bi morfema edo gehiago) eta bestean analizatzerik ez badago orduan lehena dugu emailea. Adibidez, *futbola* hitza ingelesetik hartua da, bertan *foot-ball* (hitzez hitz `oin-pilota`) hitza banatu dezakegu eta euskararen bitartez, aldiz, ezin dugu ezer ulertu nahiz eta bitan banandu hitza, ez baita gure lexikoaren bidez eraturakoa.

3- Kognatuen lekukotasuna → Hots erregularrak jasandako kognatuak badira familia bateko hizkuntza “ahizpen” artean, beste familia bateko hizkuntza bakar batean edo batzuetan agertzen den hitza lehen familiatik etorriko da. Adibidez, gaztelaniazko *ganso* germanierako **gans*-etik dator, familia honetan hainbat kognatu erregular baitaude; aldiz, gainerako erromantzeetan ez dago besterik.

4- Aztarna geografiko eta ekologikoak → Nabarmena da hizkuntza bizi den eremuan existitzen diren animalien edo landareen izenak normalean ondare zaharrekoak izango dira eta, berriz, bertan existitzen ez direnentzat maileguak izatea. Adibidez, *zebra* eta *kanguro* hitzak maileguak dira, Afrika eta Australian bakarrik aurkitzen diren animaliak baitira. Baina beti ez da hain nabarmena, eta batzuetan historia eta hizkuntza biak batera erabilia bakarrik asmatu dezakegu maileguen norabidea eta etorki zehatza. Kognatuen eta geografiaren irizpideak ez dira fonologiak eta morfologiak eskaintzen dizkigutenak bezain egonkorak, baina ondo erabiliak badira lagungarri eta sendogarri izan daitezke.

6. Taularen osaera

Lehendabizi ezkerreko zutabearen, “Hitza” izenekoan, aurkitutako mailegu guztiak alfabetikoki zerrendatu ditugu euren gramatika kategoria zehaztuz (hau ere *Euskal Hiztegia*-k dakarren informazioa da). Hurrengo zutabearen, “Data” izenekoan, *Euskal Hiztegia*-k dakartzan hitz horien lehen agerpenen datak ezarri ditugu. Ondoren hasierako hitzaren behin-behineko etorkia jarri dugu; “etimologia” deitu dugun zutabearen; batzuetan bi aukera ere egon daitezke, baina azpimarratuta edo lehen posizioan ageri dena jo dugu “benetako” etimotzat. Nahiz eta batzuetan jakin hitz baten etorkia ez dela proposatzen duguna, adibidez, ez dugu *balio* hitzaren etorkia aurkitu, horregatik alboko hizkuntzetako antzeko hitzak jarri ditugu aldeia ikusteko behintzat; kasu honetan *valor* (lat. eta gazt.). Antzeko izan arren, formaz ezinezkoa da hortik etortzea, horrelako gertaeretan “etorki” hauek kakotx artean txertatu ditugu, horrela [*valor*]. Beste kasu batzuetan etorkiak guk proposatuak dira, adibidez, *balakatu*, *baliatu* hitzen kasuan. Azkenik, maileguak eta haien jatorri etimologikoa ahalik eta ondoen zehaztuta, bi hizkuntzetako (euskara eta kasuan kasuko) adierak erkatu ditugu, eta bien artean semantika arloan dauden berdintasun (=) eta ezberdintasunak (≠) markatu ditugu “Semantikoki” izena eman diogun zutabearen, jatorrizko esanahia zein proportziotan

mantendu den, eta zeinetan murriztu edo aldaketak jasan dituen zenbakitan ere azaldu ahal izateko.

Aldaketa semantikoa (\neq) aurkitu dugun kasuak gure lan honen helburua direnez, taula amaieran banaka azaltzen joan gara, bakoitzaren adiera guztiak islatuz euskara eta beste hizkuntzaren arteko aldeak agerian jarri eta azaltzeko asmoz.

Taulan dauden laburdurak: ale.: alemana, and. ara.: andalustar arabiera, ara.: arabiera, ara. klas.: arabiera klasikoa, arp.: arpitana edo franko proventzera, bear.: bearnesa, bear. zah.: bearnes zaharra, erd. lat.: Erdi Aroko latina, errom.= erromantze, fr.: frantsesa, fr. zah.: frantses zaharra, gal.: galesa, gask.: gaskoiera, gazt.: gaztelania, gazt. zah.: gaztelania zaharra, got.: gotikoa, gr.: grekera, ingl.: ingelesa, ingl. zah.: ingeles zaharra, irl.: irlandera, irl. zah.: irlandera zaharra, ital.: italiera, kat.: katalana, lat.: latina, lat. arr.: latin arrunta, lat. zah.: latin zaharra, lat. zel.: latin zeltera, mozar.: mozarabiera, per.: persiera, port.: portugesa, prov.: proventzera, sanskr.: sanskritoa.

7. Taula

<u>HITZA</u>	<u>DATA</u>	<u>ETIMOLOGIA</u>	<u>SEMANTIKOKI</u>
baba. iz.	XIII, *1562, XVII	lat. <i>fabam</i>	=
babarrun. iz.	1880; 1841; *1745, 1847	lat. * <i>faba Romana</i>	=
babes. iz.	1600, 1847; 1635	lat. <i>pavés</i>	=
babil. iz.	*1745, 1800	gazt. <i>pabilo</i> edo <i>pábilo</i> (< lat. arr. <i>papīlus</i>)	=
babo. izond.	1894	gask. <i>babó</i> gazt. <i>bobo</i> (< lat. <i>balbus</i>)	=
badia. iz.	1897; 1677	gazt. <i>bahía</i> (agian < fr. <i>baie</i>)	≠
bafa. iz./bafada. iz.	*XVII/ 1828	cf. lat. <i>baf</i> , ziurrenik forma erromanikoren batetik [fr. edo gask. <i>bouffée?</i>]	=
1 бага. iz.	1571	cf. lat. <i>vago</i> cf. fr. <i>vague</i> (gask.?)	=
bagai. izond.	*1745, 1800; *XVII, 1715, 1853	cf. bear. <i>baga</i> “La proporción correcta es, por ej., <i>bagant</i> : <i>bagai</i> :: <i>galant</i> : <i>galai</i> , donde el último término, más reciente, procede de *-ane, es decir, de rom. -án” (OEH).	=
bagaje. iz.	*1745, 1800; *XVII, 1715, 1853; 1712	gazt. <i>bagaje</i> (< fr. <i>bagage</i> < <i>bage-tik</i> < got. * <i>bagga</i> ; cf. ale. <i>Biegen</i>)	=
bago. iz. (Ik. pago)	*1562, 1802; 1657; 1857	lat. <i>fagum</i>	=

bagoi. iz.	1961; 1900	gazt. <i>vagón</i> (< ingl. <i>wagon</i>)	=
bahe. iz.	*1562, 1571	errom. * <i>bane</i> (< lat. <i>vannus</i>) gazt. vano (< lat. <i>vannus</i>)	=
bahitu. ad.	*1562, 1643	cf. errom. <i>banido</i> cf. bear. zah. <i>bandiment</i>	=
1 baia. iz.	1635		
2 baia. iz.	*1988	gazt. <i>baya</i> (< fr. <i>baie</i>)	=
bailara. iz.	*1898, 1915; *1745, 1755		
baile. iz.	1795	gazt. <i>baile</i>	=
bainatu. ad.	*1562, 1664	gazt. <i>bañar</i>	=
bainila. iz (Ik. banilla)		gazt. <i>vainilla</i>	=
bainu. iz.	*1745, 1761; *1562	gazt. <i>baño</i> (< lat. <i>balneum</i>)	=
